

Dosiak eta perfusio bonbak ondo erbiltzeko ariketak

1.- Biriketako tronboenbolismoa duen gaixo bati 250mg/egun heparina sodiko eman behar dizkiogu, benabarneko bidez perfusio bonbarekin. 500ml serum fisiologiko eman nahi badizkiogu, zein izango da perfusio bonbaren erritmoa?

Informazioa: Daukagun heparinaren kontzentrazioa %5 da eta anpulu bakoitzak 5ml ditu.

2.- Larrialdietan gaixo bati 100mEq bikarbonato eman behar badizkiogu benabarneko bidez, zenbat ml eta zein motatako serum bikarbonatua emango zenioke?

3.- 40 urteko gaixoa daukagu, 83 kilo pisatzen duena, miokardiopatia dilatatuak eraginda biriketako edema duelako ZIUan ingresatu da. Zenbat ml/ordu jarri behar dira perfusio bonban?

Informazioa:

Tratamendua: dobutamina.

Dosia: 10mikrog/kg/min

Prestatzeko protokoloa: 250ml serum glukosatu hartu (glikosaren kontzentrazioa: %5) eta 4 anpulu dobutamina gehitu.

Dobutamina anpulu 1 = 20ml = 250mg

4.- 12 ordutan, %5eko serum glukosatu 1.000 cc preskribatzen dira.

4.1.- 500cc-ko ontzi bakoitzak, zenbat gramo glukosa dauka?

4.2.- Preskripzioa bukatzerakoan, zenbat Kcal eman dira?

4.3.- Zenbat tanta minutuko eman behar dira preskripzioa betetzeko?

4.4.- Agindu medikoa berriz ezartzen bada, zenbatekoa da 5 egunetan pasatu beharko den bolumena?

5.- Agindu medikoak 2.400.000 Unitate penizilina benzatina preskribitzen dizkio paziente bati.

Informazioa: Anpulu 1 = 1.200.000 U.

Anpulu bakoitza, 4cc-tan diluitzen da.

5.1.- Zenbat cc penizilina eman behar zaio guztira pazienteari?

5.2.- Zein da erabili beharreko bidea?

5.3.- Dosia 700.000 Unitatekoa balitz, zenbat cc eman beharko ziren?

6.- 8 orduero 160mg gentamizina eman behar dira, 7 egunetan, i.m bidez.

Informazioa: Gentamizina anpulu 1 = 80 mg = 2cc

Emateko orduak hauexek dira: 8:00, 16:00 eta 00:00 hrs.

- 6.1.-** Zenbat cc eman behar dira 8:00etan?
- 6.2.-** Zenbat anpulu eman behar dira 00:00etan?
- 6.3.-** Zenbat mg ematen zaizkio paziente honi 24 ordutan?
- 6.4.-** Zenbat cc ematen zaizkio paziente honi 24 ordutan?
- 6.5.-** Guztira, 7 egunetan, zenbat g gentamizina ematen zaizkio pazienteari?
- 6.6.-** 7 egun hauetan, zenbat anpulu gentamizina erabili beharko dira tratamendurako?

7.- Paziante bat daukagu fluidoterapiarekin, serum fisiologiakoarekin (sodio kloruroa %0.9) Infusio-abiadura 20 tanta minutukoa da.

- 7.1.-** Zenbat g NaCl dauka 500cc-ko ontzi batek?
- 7.2.-** Zenbat cc/ordu eman behar diogu pazienteari?
- 7.3.-** Zenbat cc/24 ordu ditu indikatuta?
- 7.4.-** 24 ordurako, zenbat ontzi (500cc-koak) beharko dituzu?
- 7.5.-** Ontzi bakoitzak, zenbat ordu eta minutu iraunduko ditu?

8.- Medikua 400mg anpizilina preskribatzen ditu i.v.

Informazioa: Anpizilina ontziak 1g dauka.

Protokoloa: Anpizilina ontzia, lehenengo, 5cc-tan disolbatzen da. Gero, preskribatutako anpizilinaren dosia, 50ml serum fisiologikotan diluitzen da.

- 8.1.-** Zenbat cc anpizilina sartu behar dira serum fisiologikotan?
- 8.2.-** 20 minututan emateko, zein da programatu behar den bonbaren abiadura (tanta/min)?
- 8.3.-** Zenbat mg anpizilina daude diluzioaren 10cc-tan?
- 8.4.-** Administrazioa bukatzerakoan, zenbat gr NaCl eman dizkiogu pazienteari?

9.- Paziante batek, bihotz-zirkulatorio gutxiegitasun baten desoreka akutuarekin, dobutamina 10mcg/kg/min-ko preskripzioa dauka.

Informazioa: Pazienteak 60kg pisatzen ditu.

Dobutamina anpulu batek 250mg 20ml-tan dauka.

Protokoloak zera agintzen du:

4 anpulu dobutamina hartu eta %5eko serum glukosatu 250ml-tan diluitu

- 9.1.-** Prestatutako soluzioaren bolumen osoa eman
- 9.2.-** Zein da soluzioan dagoen farmakoaren kontzentrazioa?
- 9.3.-** Zein da pazienteari preskribatutako dosia minutuko?
- 9.4.-** ml baten mg-ak, mcg-tara pasatu
- 9.5.-** Preskripzioa emateko, zein izango da bonbaren abiadura (ml/ordu)?

10.- Heparina sodikoaren anpuluek 5ml dituzte eta haien kontzentrazioa %1ekoa da (1.000 UI/ml).

Preskripzioa 80 UI/kg-koa da. Dosi hori, i.v eman behar da zuzenean eta astiro bolusen bidez. Geroago, perfusio jarraia jarri beharko da.

Informazioa: Pazienteak 83 kg pisatzen ditu.

- 10.1.-** Zein da i.v bolusean eman behar den dosia (UI)?
- 10.2.-** Zenbat ml eman behar dira?